

Gurs. El campo vasco (Txalaparta, 2007) liburuan, gertu bezain urrun zegoen kontzentrazio esparru frantziarraren historia azaldu digu Josu Chueca EHUko Historia Garaikideko irakasleak. Eguneroko biziraupenaren borrokan sartu ziren milaka euskaldunei izen eta abizenak jarri dizkie. 13 zatitan banatutako 8 km²-ko kartzela handia: 328 barrakoi, 18.000 pertsona. “Eskubide motzak, janaria ez ugari eta zaindari gutxi”, horrela deskribatu zuten Gesalibar kronistak Gurs.



INIGO URIZ

Josu Chueca

«Gertatu zena jakin ezean, hanka-motz geratuko dira handikeria instituzionalak»

Euskal historiografiak ez dio kasu gehiegirik egin Gurseko esparruari. Zergatik? Liburu honek hutsune hori bete nahi al du nolabait?

Gai hauek desoreka handia izan dute orain gutxi arte euskal historiografian. Faktore asko daude: artxiboen inguruko legeak eta horien egoera penagarria; historialariek ikerlanak beste esparru batzuetara bideratu izana... Horregatik, lantalde indartsu batek urte askoan egin beharreko ikerketa ezinbesteko dugu.

Nola ulertu daiteke frantziarrek (eta Iparraldeko euskaldunek) errefuxiatuen aurrean izandako jarrera?

Frantziak 1936tik aurrera Front Populaire-ko gobernuak izan zituen. Baina Espainiarekin harremanak ez ziren onak, Leon Blum frantziar sozialista Britainia Handiaren jokabidera makurtu zelako. Ez da harritzekoa Frantziak bizkarra ematea Espainiako Fronte Popularrari. Are okerrago, Espainiako “gorriekiko” jarrera gogortu egin zen. Eta hori ezkertiarren artean gertatzen bazen, pentsa eskuindarrekin. Iparraldeko diputatuak eta biztanle gehienak gisa honetakoak ziren, nahiz eta euskaldunak izan; muga gurutzatzen zutenak “gorriak” ziren beraientzat, hau da, arbuiagarriak. Hala ere, gutxiengo batek elkartasunari eutsi zion, baita Ipar Euskal Herrian ere.

Argeles-ko (Perpinyango hondartza) “Gernika Berri” izan zen Gursen aurrekaria. Azkar antolatu ziren euskaldunak han. Zerk bultzatuta? Nortasunaren aldarrikapenak izan al zuten zerikusirik antolaketa bizkor horretan?

URKO APAOLAZA

Gursen 1939 eta 1940an izandako 6.000 euskaldunen zerrenda dakar liburuak: “Gorderik zegoen izeberga ia bere osotasunean azaleratu dugu”. Irudian, jende multzoa kontzentrazio esparruko alanbrezko hesian pilatuta. 1940ko neguan 596 lagun hil ziren Gursen hotzez eta gosez, gehienak Badetik deportatutako judutarrek.

Beharrak bultzatu zituen, ezbairik gabe. Tartean desberdintasun politikoak baziren ere, erbesteak zekartzan bizi baldintzei aurre egin behar zieten. Eusko Jaurlaritza erbestean ohituago zegoen Espainiako edo Kataluniako gobernuak baino eta horregatik mugitu ziren hain azkar Perpinya aldean. Alde horretatik, euskal nortasuna aldarrikatzea lagungarri izan zuten Euskal Herrira hurbiltzeko elkarriketetan.

Euskaldunak Gursera iritsi eta “harrera gune” bat baino sasi-kartzela bat topatu zuten bertan. Baina ondorengo urteetan judutarrek bertan jasan zutenak ez du izenik.

Bai, bi Gurs desberdinu beharko genituzke. Latzena 1942. urtetik aurrerakoa izan zen. Gurs “behin betiko soluzioaren” ekimen nazian sartu zen eta Frantziako agintariek bat egin zuten genozidio horrekin. 14.000 gurstar eraman zituzten Auschwitzera eta Mauthausenera.

Liburuaren sarreran, ezagutza-onarpena binomioa aipatzen duzu, urrun al gaude oraindik binomio horretatik?

Ziur nago ezuste galanta izanen dela jende askorentzat Gurs bezalako gertaera azaleratzea.

Orain dela gutxi onarpenaren aldeko ekimenak martxan jarri dituztenean, oso nabarmen geratu da instituzioek ere ezagutza mailan hutsune ikaragarriak dituztela. Onartzeko, omentzeko, lehen urratsa da zer gertatu zen argitzea. Bitartean, hanka-motz geratuko dira handikeria instituzionalak. ■

